



Enpresa, giza eskubideak eta iraunkortasuna



Ira. 12 2023

Kod. W17-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Ira. 12 2023

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Enpresaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen arteko harremanak bilakaera handia izan du azken 20 urteotan. Gizarte Erantzukizun Korporatiboan oinarritutako borondatezko esparru batetik Giza Eskubideen arloko Nazioarteko Erantzukizuneko sistema batera igaro gara. Dagoeneko 10 urte bete dituzten NBERen printzipio gidariak, enpresei eta Giza Eskubideei buruzkoak, funtsezko inflexio-puntu izan dira bilakaera horretan. Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko NBERen Lantaldea 5 aditu independentek osatzen dute, eta printzipio horiek garatzeko eta aplikatzeko ardura du. Topaketa hau aukera bat izango da sistema hori ezagutzeko eta beste printzipio batzuen tokiaz hausnartzeko, hala nola ustelkeria, gobernu ona, erosketa publikoa, behar bezalako arreta eta, bereziki, iraunkortasuna. Estatu gehienek eta Nazioarteko Erakundeek, hala nola ELGak, dagoeneko onartu dute nazioarteko sistema hori lan-esparru gisa.

Ondoren, elkarrizketa Fernanda Hopenhaym Nazio Batuetako Enpresa eta Giza Eskubideen arloko Lantaldeko kidearen eta Juanjo Álvarez UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradunaren artean. Moderatzailea: Mikel Mancisidor, legelaria eta Nazioarteko Harremanetan eta Diplomazian doktorea.

Programa

2023-09-12

17:45 - 18:00 Registro / Erregistroa

18:00 - 19:15 “La sostenibilidad, la empresa y los derechos humanos “

Diálogo posterior entre Fernanda Hopenhaym, miembro del Grupo de Trabajo de las Naciones Unidas sobre Empresas y Derechos Humanos, Juanjo Álvarez, catedrático de Derecho Internacional Privado de la UPV/EHU y Jose Antonio Rodriguez Ranz, Viceconsejero de Derechos Humanos, Memoria y Cooperación, Modera: Mikel Mancisidor, jurista y doctor en Relaciones Internacionales y Diplomacia.

Fernanda Hopenhaym Cabrera | Miembro del Grupo de Trabajo de la ONU sobre empresas y derechos humanos

Irakasleak



Fernanda Hopenhaym Cabrera

Enpresen eta giza eskubideen arloko NBeko Lantaldea

Fernanda Hopenhaym Enpresen eta Giza Eskubideen arloko NBeko Lantaldeko kidea eta Antolaketa, Garapen, Hezkuntza eta Ikerketa Proiektuko (PODER) zuzendarikide exekutiboa da; Latinoamerikako erakunde horrek enpresa-erantzukizuna du ardatz. NBeren Printzipio Gidarien aplikazioari loturiko prozesuetan parte hartu du, eta baita tresna garrantzitsuei buruzko beste prozesu batzuetan ere, hala nola Tratatu Loteslearen negoziazioetan eta arreta egokiari buruzko legeetan. Enpresek giza eskubideetan eta ingurumenean duten eraginari buruzko ikerketak egin ditu, proiektu publiko/pribatuek baldintzaturiko tokiko komunitateekin lan egin du eta justizia eta erreparazioa bilatzen lagundu die. Mundu mailan sustapen-jarduerak egin ditu enpresen eta giza eskubideen kontu-ematean aurrera egiteko eta, horrez gain, enpresei eta giza eskubideei loturiko gaitasunen prestakuntzaren eta garapenaren buru izan da. ESCRNeteko Zuzendaritza Batzordeko presidente izan zen eta gaur egun EarthRights Internationaleko zuzendaritza batzordeko kide eta Business and Human Rights Award Foundationeko aholkulari da.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2023-09-12 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

IZEN EMATEA - ONLINE ZUZENEAN

2023-09-12 ARTE

[Matrikula doan](#)

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa